

## Etxean erabiltzen den hizkuntza (>=16 urte). Euskal Herria

### Definizioa

Euskal Herriko biztanleek etxean zein hizkuntza erabiltzen duten jasotzen du adierazle honek.

### Hedadura

Euskal Herria

### Aldagaiak eta kategoriak

- **Eremu geografikoa:** Euskal Herria, EAE, Nafarroa, Iparraldea, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherea/Zuberoa

- **Erabiltzen den hizkuntza:**

- Beti euskaraz
- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- Euskaraz erdaraz beste
- Euskaraz erdaraz baino gutxiago
- Beti erdaraz
- Ez daki/Ez du erantzun

\*OHARRA: Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan gehienetan eta frantsesari buruz Iparraldean, baina ez da beti horrela; izan ere, gero eta gehiago dira gaztelania edo frantsesa ez den beste hizkuntza batean ere mintzatzen direnak.

### Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

Etxean erabiltzen den hizkuntza adinaren arabera

Etxean erabiltzen den hizkuntza sexuaren arabera

### Iturria

Inkesta Soziolinguistikoa

#### Iturriaren ezaugarriak

Inkesta Soziolinguistikoa aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute.

Inkesta Soziolinguistikoa lau esparru hauen datuak neurtzen ditu: euskara-gaitasuna, euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.

Inkesta Soziolinguistikoa estatistika ofiziala da, eta 020703 kodearekin dago jasota Euskal Estatistika Planean.

Lehenengo hiru inkestak aurrez aurre egin ziren, baina 2006tik aurrera telefonoz egitea erabaki zen.

#### Iturriaren arduraduna

Inkesta Soziolinguistikoa arduradunak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuko Euskarabidea eta Iparraldeko Euskaren Erakunde Publikoa dira.

<b>Lehenengo datua eta maiztasuna</b>	<p><b>Lehenengo datua:</b> Lehen Inkesta Soziolinguistikoa 1991n egin zen.</p> <p><b>Maiztasuna:</b> Bost urterik behin egin da.</p>
<b>Lagina eta akats-tartea</b>	<p>Azken datu-bilketa 2016an egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.</p> <p>Laginketa polietapikoa izan da, eta inkestak egiteko, etxebizitzan aukeraketa geruzatua egin da, gune soziolinguistikoaren eta udalerraren arabera.</p> <p>Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen arabera haztatu dira emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.</p> <p>2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoa 8.200 inkesta egin dira guztira: 4.200 EAEn, 2.000 iparraldean eta 2.000 Nafarroan.</p> <p>Euskal Herriko lagin osoaren akats-tartea <math>\pm</math> % 1,4koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta <math>p=q</math>=% 50. Konfiantza maila bererako erkidegoko laginketa-errorea honakoa da: EAEn <math>\pm</math> % 1,9koa, Nafarroan <math>\pm</math> % 2,9koa eta Iparraldean <math>\pm</math> % 2,3koa.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko lagin osoaren akats-tartea <math>\pm</math> % 1,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta <math>p=q</math>=% 50. Konfiantza maila bererako lurraldekako laginketa-errorea honakoa da: Araban <math>\pm</math> % 4koa, Bizkaian <math>\pm</math> % 2,8koa eta Gipuzkoan <math>\pm</math> % 3koa.</p> <p>Nafarroako lagin osoaren akats-tartea <math>\pm</math> % 2,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta <math>p=q</math>=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: Eremu euskaldunean <math>\pm</math> % 4,3koa, Eremu mistoan <math>\pm</math> % 3,9koa eta Eremu ez euskaldunean <math>\pm</math> % 5,5koa.</p> <p>Iparraldeko lagin osoaren akats-tartea <math>\pm</math> % 2,3koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta <math>p=q</math>=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: BAMen <math>\pm</math> % 3,7koa, Lapurdi (BAM gabe) <math>\pm</math> % 3,7koa eta Nafarroa Beherean-Zuberoan <math>\pm</math> % 4,5koa.</p>
<b>Informazio osagarria</b>	
<b>Argitalpenak eta txostenak</b>	<p><a href="http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/">http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/</a></p> <p><a href="http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak">http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak</a></p>
<b>Galdesorta(k)</b>	<p><a href="http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_8/ti_Inkesta_soziolinguistikoa/temas.html">http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_8/ti_Inkesta_soziolinguistikoa/temas.html</a></p>